

Bizitza da lehena

Nuestras vidas frente al capital

MAIATZAREN LEHENA 2019

ELAk hartu duen konpromisoa, **gizarte berdintsuago eta demokratikoago baten alde**, kontrajartzen zaio "ez dago alternatibarik" mezuari; hau da, sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkalak zabaltzen duen mezuari.

Ideologia neoliberalak dirua lehenesten du herri-onuraren aurretik, eta horregatik demokrazia eta eskubide sozio-laboralak oztopo baino ez dira. Ideologia horren arabera politikak gero eta gizagabeak dira. Ondorioak bistan ditugu: klima-aldaketa, prekarietatea eta pobrezia. Ekonomia-sistema honek harresiak eraikitzen ditu, eta Mediterraneo itsasoa kanposantu bihurtu, emakumeen eskubideak kaltetu, eta xenofobia eta LGTBIfobia sustatu. Milioika pertsonen bizia eta gure planetaren etorkizuna kolokan daude sistema horren eraginez.

Eskuin muturrak ildo politikoa markatzen du, eta ezkerre ez da gauza aukerako erreferentziak taxutzeko. Ia gobernu guztiak garai postdemokratiko baterantz doaz, non joera berriak nagusitzen ari diren. Hor ditugu, besteak beste, **agintekeria eta beldurraren kultura** gailentzen ari, pobreak elkarren aurka jartzen, eta aberastasuna metatzearen kontrako proiektu kolektiboak zapuzten saiatzen.

Euskal Herrian bertan ere banka eta patronala goxogoxo dabilta gobernuen, komunikabide nagusien eta klase politikoaren zati handi baten babespean. Agintekeriaz baliatzen da Eusko Jaurilaritza elkarrizketa sozialeko mahaian, eta gutxieneko zerbitzuen dekretuak erabiltzen ditu grebak indargabetzeko... Sindikalismoa traba bat da, benetako parte hartzeari aurre egiten zaio, eta lehenesten diren harremanak segiziokoak dira. **Gizarte bat ezin da demokratikoa izan, benetako kontrabotererik gabe**. Ikusi besterik ez dago nola Gasteizko eta Iruñako parlamentuek muzin egin dieten azken LHEei, alegia, antolakunde sindikal eta sozialek oinarritzko errentaz eta etxebizitzaz aurkeztu dituzten LHEei.

Horren aurrean, langileriak bere nortasuna edo izaera sendotu behar du. **Esparru kolektibotik bakarrik egin diezaiekegu aurre haien gezur eta politikei**.

Horregatik mobilizazioa, gizarte-partaidetza eta greba-eskubidea oinarritzko tresnak dira. Denona defendatzeko antolatu behar gara, zeren gure bizimoduetan zuzeneko eragina baitu. Soldata-arrakalak, pentsioek, desberdintasunak, etxebizitza-ezak eta klima-aldaketak zuzeneko eragina du guregan.

Aurten nabarmen ugalduta grebak, eta haietako askotan emakumeak izan dira protagonistak. Hori oso albiste ona da, horrela bakarrik hobetu daitezke gure bizibaldintzak, bai lan-arlokoak, bai gizarte-arlokoak. Dena dela, gauza guztien gainetik **borrokak batu egiten gaitu, gure egoeraz jabearazten, beldurra eta etsipena eta indibidualismoa gaintitzen laguntzen**.

Argiago ikusten dugu nor garen gure ondokoari begiratzen diogunean, eta konpainian sentitzen garenean, egurats gorrian pankarta bati eusten diogunean, edo gure ahotsa megafono baten bidez entzuten dugunean, gure lantokiak geldiarazten ditugunean, edo plazak eta kaleak jendez betetzen ditugunean. Zer esanik ez, garaipen txiki horiek ospatzean besarkada bero horiek elkarri ematen dizkiogunean; zerbait handi baten partaide sentiarazten gaituzte, langile izatearen harrotasuna pizten digute.

Zenbat eta greba gehiago, orduan eta hitzarmen hobeak; eta gainera, ekarpen txiki bat egiten dugu gizarte hobe baten alde: demokratikoagoa eta berdintsuagoa. Horixe da sindikatu baten zeregina, eta hori ospatzen du ELAk Maiatzaren Lehenean. Borroka horiek denonak dira.

Gizarte honen alderik onenean parte hartzeko modu eredugarri bat borroka sindikala beste borroka batzuekin elkartzen saiatzea da: errefuxiatuekin, eskakizun ekologistekin, pentsio publiko duinen aldekoekin edo Martxoaren 8ko alde feministarekin.

Politikak ez die men egin behar bankari edo enpresa handiei.

Aldaketa garrantzitsuak kalean hasten dira beti. Eta **hor denok topo egiten dugu elkar, gure biziak kapitaletik babesteko ahaleginetan**.

MAIATZAREN LEHENA 2019 #BizitzaDaLehena

IRUÑEAN

PLAZA DE LA CRUZ
GURUTZE ENPARANTZA

12:00

BILBON

SAGRADO CORAZON
JESUSEN BIHOTZA

11:45

ELA
EUSKAL SINDIKATUA